

## Gazteriaren begirada on Jose Mariaren betaurrekoekin

*Giza izaerak, errealitate berriei aurre egitearen beldur agian, iragan oro izan zela hobe diosku, baina hori ez da hola. Belaunaldiz belaunaldi birus hilgarri baten antzera mezu ilun bat zabaltzen duen ameskeria bat baino ez da: **ez zaitezte saiatu, ez egin ahaleginik.***

*Hala ere, arau orok du bere salbuespena, eta horixe da gurea, kooperatibista gazteen alternatiba gazte, fresko eta sortzailea; alegia, dena berrasmatu eta ez konformatzea erabaki duten gazteak, ezarrita dagoenaren, status quo-aren eta erosotasunaren kontra aurrera egitea erabaki dutenak... gizarte bidezkoago, zuzenago eta, ingurumen, gizatasun eta ekonomia arloan, sostengarriago baten alde: **gizarte hobea, mundu hobea. Gure lanaren bitartez libreak, autokudeatuak eta zoriontsuak izatea erabaki** dugun pertsonak.*

*Arizmendiarieta etengabe ari zaigu erakusten itzal arteko argia, lankidetzan jardunez erreferentziatzkoa eta, batez ere, desberdina den enpresa talde bat sortzeko gai den herri batu baten inspirazioa. Hala, Euskal Herria dugu munduko eskualderik igualitario eta bizi kalitate onenekoen arteko bat. **Hori dela eta, erantzukizunez eta ausardiaz jardun behar dugu.***

*Jakin badakigu, estimatzen dugu eta sinesten dugu. Hori dela eta, Arizmendiarietaren Lagunak Elkartekook (ALE) bizitza alternatiba hori hedatzen lagundu nahi dugu. Lankidetzan proiektu gisa sustatu nahi dugu, izateko eta ikusteko modu desberdin bati eutsiz. ALEko talde "gaztea" tokiko egitasmoak eta egitasmo globalak konektatu nahian dabil; belaunaldiak eta kulturak lotu nahian... ekintzarako inspirazio izateko eta **enpresa egiteko eta mundua eraldatzeko bestelako moduak** ere badaudela erakusteko.*

*Elkartean jakitun gara Mondragoeko mugimendu kooperatiboaren hasierako esentziaren espiritua (eta zuzendaritza batzordea) gaztetu beharra dagoela. Gainera, gure ametsa da ondarea eta gidaritza bere gain hartuko duen lantalde gazte eta indartsu bat sortzea. Ohartzen gara espirtu kooperatiboa gaztetzeko berriz planteatu beharko dugula gure komunikatzeko modua, kide direnekin eta horren kide ez direnekin elkartu beharko dugula, eta ikastola, eskola eta unibertsitateekin lankidetzan jardun. Agerian jarri nahi ditugu beren eguneroko ekintzekin, eta gure inspirazio iturri emankorrek direla jakin barik, tokiko garapena eta garapen kooperatiboa bultzatzen duten enpresak eta pertsonak.*

*Elkartean dihardugunok horretarako konpromisoa hartzen dugu, eta geure egiten dugu on Jose Mariaren maxima hau: mundua etengabe eraldatzeko eman zaigu, ez begira egoteko. Aurrera, beti aurrera!*